

PENTSATU eta AUKERATU

1. Nire amak nire aitak baino sei urte gutxiago ditu.

- ☐ Nire ama nire aita baino gazteagoa da.
- ☐ Nire ama nire aita baino nagusiagoa da.




2. Nik nire anaiak baino 5 euro gutxiago ditut. Nire anaiak 8 euro ditu.

- ☐ Nik 5 euro ditut.
- ☐ Nik 3 euro ditut.


3. Kutxa batean 25 gaileta daude eta pote batean kutxan baino 10 gaileta gehiago.

- ☐ Kutxan gaileta gutxiago daude.
- ☐ Potean 35 gaileta daude.
- ☐ Potean 10 gaileta daude.
- ☐ Kutxan gaileta gehiago daude.





4. Nik zazpi urte ditut eta nire nebak 8.



- ☐ Nik nire nebak baino urte 1 gehiago dut.
- ☐ Nik nire nebak baino 7 urte gutxiago ditut.
- ☐ Nik nire nebak baino urte 1 gutxiago dut.

5. Lau banana eta hiru laranja erosi ditut.

- ☐ Bananak baino laranja bat gutxiago erosi dut.
- ☐ Bananak baino laranja bat gehiago erosi dut.
- ☐ Bananak baino hiru laranja gehiago erosi ditut.



6. Nire estutxean 5 borragoma eta 3 arkatz ditut.

- ☐ Borragomak baino 2 arkatz gutxiago ditut.
- ☐ Borragomak baino 2 arkatz gehiago ditut.
- ☐ Borragomak baino 3 arkatz gutxiago ditut.





7. Ziba batek 15 € balio du eta soka batek 10 €.

- ☐ Sokak zibak baino 10 € gutxiago balio du.
- ☐ Sokak zibak baino 5 € gehiago balio du.
- ☐ Sokak zibak baino 5 € gutxiago balio du.



8. Nik 5 € ditut eta nire anaiak 8 €.

- ☐ Nire anaiak baino 3 € gehiago ditut.
- ☐ Nire anaiak baino 5 € gutxiago ditut.
- ☐ Nire anaiak baino 3 € gutxiago ditut.

9. Koldok 30 kg. pisatzen du eta Anek 20 kg.

- ☐ Anek Koldok baino 20 kg gutxiago pisatzen du.
- ☐ Anek Koldok baino 10 kg gehiago pisatzen du.
- ☐ Anek Koldok baino 10 kg gutxiago pisatzen du.